



xa **sencillemente**  
transformar la realidad

### Aro txarrak bakearentzat

Gaurko munduan, gatazka armatuak eta indarkeria izugarri areagotu eta larriagotu dirala emoten dau. Horren zoritxarreko adierazle dira, alde batetik, gatazka armatuek urtero gitxi gora-behera eragiten dabezan zuzeneko 175.000 biktimak eta, bestetik, zoritxarreko errekorra lortu izana: gerraren eraginez errefuxiatutako edo desplazatutako pertsonen kopururik handiena (guztira, 65 milioi inguru, AC-NURen arabera) dauan une historikoa. Horregaz batera, segurtasunik eza eta bildura antzematen dira herrialde askotako herritarren artean, eta dalako sentimendu horreek, benetako oinarririk badabe be, sarritan interes politiko edo ekonomiko jakin batzuk ahalbidertzeko suspertzen eta manipulatzeko dabez.

### Gatazka armatuak eta informaziorik eza

Beste alde batetik, gaur egun munduan indarrean dagozan gatazkez ezer gitxi dakigula autortu beharra dogu. Eta horren inguruko informazioa dogula uste dogunean, normalean dalako gatazko horreen azaleko ikuskerea baino ez dogu izaten. Holan, esate baterako, fundamentalismo erlijiosoak ("yihadismo" deitutakoak) eragindakotzat doguzan gatazkei jagokenez, apur bat arakatzeko badogu, laster aurkituko doguz alderdi erlijiosoagaz zerikusit gutxi daukien eragile ekonomiko edo estrategikoak eta baita erlijioagaz zerikusirik ez daukien erantzukizunak be euren kudeaketan.

Hau kuriozosa da, izan be, gaurko munduan, gitxienez teknologia barriak eskuratzeko makina bat aukera dogun lekuetan, material informatibo zabala dogulako eta iturriak be, itxura batean, anitzak izaten diralako. Halanda be, iragazki garrantzitsuek baldintzatzen dabe persona informatu izateko dogun gaitasuna, hain zuzen be, zer argitaratzen dan eta zer ez aukeratzeko mekanismo interesatuek,

# Gerra ahaztu


## Bakea gura badozu, zuzentasunaren alde jardun

informazio internazionala esku gitxi batzutan metatzeak, edukiaren gaineko irudiaren nagusitasunak (batez be ikusgarria edo hunkigarria bada), albisteak normalean testuingurutik kanpo eta analisi barik aurkezteak... Azken batean, norbaitek esan eban lez, "ia gauza guztien inguruko informazioa daukagu baina, egia esan, ez gara ezertaz enteratzen".

### Gerra eta indarkeria bidezkoztat ez jo

Bada alderdi benetan kezagarria: indarraren eta militarismoaren erabileraren onarpena. Esan gura dana ez da orain, beren-beregi, nazioarteko eztabaidak konpontze aldera, gerraren aldeko ahots gehiago dagoanik, hori XXI. gizaldian ez da eta maiz gertatzen. Baina, oster, gerraren aldeko edo indarkeriari zilegitasuna emoteko diskurtsoa hainbat agintari politiko eta komunikabideren argumentuetan azaltzen da eta, ondorioz, eretxi publikoan. Horren haritik, esate baterako, ejertzitoak indartzea edo jarduera militarrik beharrezkotzat jotzen dira edo, bestela, kalte txikientzat (kalte txikiena, noentzat?) abagune internazionalen. Horregaz batera, gobernuek era guztietako argumentuak erabilten dabez euren ejertzitoak bakearen bermatzaile lez aurkezteko, eta baita krisiak eta hondamendiak gertatzen diran lekuetan lagundu egiten daben eragile humanitario lez be. Gobernu horreek dira, hain zuzen be, azken urteetan nazioarteko lankidetzarako eta jarduera humanitariorako bitartekoak gitxitzeko neurri zorrotzak jarri dabezanak. Paradoxikoa, ezta?

Hainbeste heriotza eta suntsiketa ekarri izan dauan "bakea gura badozu, prestatu gerra" ideiarenean, gizadiaren geroaren oinarri bihurtu gurako geunken uste sendoa adierazi nahi dogu, Paulo VI.aren berbak erabiliz: "bakea gura badozu, zuzentasunaren alde jardun".



## Gaur egungo gerrak

Siria, Irak, Libia, Afganistan, Yemen, Hegoaldeko Sudan, Burundi, Txad ibaiaren arroa... dira, besteak beste, gatazka armatu larriak jasaten dabezan lekuak. Maiz jasotzen dogu batzuen barri (bate be lehenengoei buruz), beste batzuek ezer gutxi dakigu.

Hain zuzen be, manipulazino edo isiltasun informatiboa saihesteko, munduan hedatuta dagozan gatazkei buruzko iturri alternatibo edo espezializatueta jotea komeni da: esate baterako, *Escuela de Cultura de Pau* Gatazka eta Bakearen Eraikuntzarako Behategia (<http://escolapau.uab.cat>), edo *Institute for Economics and Peace* dalakoak argitaratzen dauan "Bake-indize orokorra" (goiko mapa), gatazkei, jarduera terroristari eta hainbat herrialdetan indarkeriak dauan hedapenari buruzko datuak aztertzen dabezalarik (<http://www.visionofhumanity.org>).

## Gure ekarpena bakea eraikitzeko

Hobeto informatzeaz eta gerrak gure munduan dituan ondorioengaitik sumintzeaz gainera, ezinbestekoa da bakearen aldeko konpromisoa eraginkortasunez suspertzea. Gaur sekula baino gehiago, indarkeriarik ezaren eta zuzentasunaren alde gagozanok jarrera bakezale aktiboa berreskuratu eta zabaldu behar dogu gure bizitzako arlo guztietan.

- **Herritar lez:** Gure ordezkari politikoei bakearen eta gatazkak bide baketsuetatik konpontzearen aldeko konpromisoa eskatuz. Armamentuaren arloko gastua gehitzea eta jarduera militarrik suspertzen eta armen merkataritza ahalbideratzen dabenei laguntasunik ez emonez.
- **Kontsumitzaile lez:** Adi egonez, gure esku dagoan neurrian, gerra eragiten dabenei edo gerragaz, okupazino militarrikaz edo armen salerosketagaz negozioa egiten dabenei enpresei edo egundoko irabaziak dakartzean armen negozioan esku-hartzen dabenei finantza-erakundeek ez laguntzeko. (ikus: <http://www.bancaarmada.org>).

## Desaprender la guerra (Luis Guitarra)

*Desaprender la guerra, realimentar la risa,  
deshilachar los miedos, curarse las heridas.  
Difuminar fronteras, rehuir de la codicia,  
anteponer lo ajeno, negarse a las consignas.  
Desconvocar el odio, desestimar la ira,  
rehusar usar la fuerza, rodearse de caricias.  
Reabrir todas las puertas, sitiar cada mentira,  
pactar sin condiciones, rendirse a la Justicia.  
Rehabilitar los sueños, penalizar las prisas,  
indemnizar al alma, sumarse a la alegría.  
Humanizar los credos, purificar la brisa,  
adecentar la Tierra, reinaugurar la Vida.*



- Geure **bizitza pertsonalean:** Dalako egun batean emakumezkoen mobimentuak ospetsu bihurtu eban 'pertsonala politikoa da' goiburua erabiliz, holan bada, errealidadea aldatzeko baliagarri dalako. Gure eguneroko bizitzak indarkeriari eta indarraren (fisikoa eta baita hitzekoa be) erabilerari kontrajarritako jarrerak eta jarduerak zabaltzeko aukerea emoten deusku: beste persona batzukaz dogun hartu-emonean, errealidadearen aurrean jarrera hartzean, komunikatzeko eran...
- **Hezkuntzari** –formalari zein ez formalari- funtsezko eginkizuna jagoko balioak transmititzeko eta gerra ahaztea eta bakea eraikitzea ekarriko dabenei jokaerak suspertzeko.

## Proposamena:

- Informatu eta informazinoa trukatu gaur egun indarrean diran gatazka armatuei buruz, arlo honetan jarduten dabenei nazioarteko eta alkertasunezko erakundeek bitartez (mezu honetan aitatzen dira iturri batzuk).
- Urtarrilaren 30ean (Gandhiren heriotzaren urteurrena) eskoletan ospatzen dan indarkeriarik ezaren eta Bakearen aldeko egunean eta aurreko egunetan, hezkuntzarako eta sentiberatasuna bizteko hainbat jarduera antolatzen da. Holako batean parte hartu daikezu. Zehazki, Bilbon, urtarrilaren 30ean, 12:00etatik aurrera eta eskolapioen ikastetxetik abiatuta, ospatuko dan 'globadara' etorteko konbitea luzatzen deusugu. Gehiago jakin gura badozu: <http://www.itakaescolapios.org/semana-de-la-paz/2015-2016-semana-de-la-paz/>
- Gure eguneroko jarreraren bidez bakea suspertzearen haritik, patxadaz hausnartu eizu, Luis Guitarraren "Desaprender la guerra" abestia kontuan hartuta: <https://www.youtube.com/watch?v=EC-xvYC7ooU>